

PRESTAKUNTZA JARDUNALDIA: Hizkera argia eta irakurketa erraza. Tresnak, ulertzeko eta mezuak ulertarazteko.

Norentzat: Ikastetxeetako eta CERMINEko erakunde kideetako zuzendaritza taldeentzat

Apirilak 24, ASTEARTEA, Hezkuntza Departamentuko Ekitaldi Aretoan

Helbidea: San Domingo k., 8.

11.00- 11.30.

Harrera eta aurkezpena

MARILUZ SANZ. CERMINEko presidentea

AITOR ETXARTE. Nafarroako Eskola Kontseiluko Presidentea.

OLGA CUAIRÁN. Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuen sekzioa

11.30 - 14.00.

Txostena. 1. Saioa: HIZKERA ARGIA, eta huraxe nola aplikatu zuzendaritza taldeen komunikazioaren kudeaketan.

OSCAR GARCÍA. PLENA INCLUSIÓN MADRID. Irisgarritasun Proiektuen arduraduna. Testuak irakurketa errazera eta hizkera garbira egokitzen ditu.

14.00-14.30.

Txostena. 2. Saioa: HIZKERA ARGIA, eta huraxe nola aplikatu zuzendaritza taldeen komunikazioaren kudeaketan.

VANESA ALONSO. ANFAS (PLENA INCLUSIÓN NAVARRA). Erakundeko Irisgarritasun kognitiboko zerbitzuan lan egiten du.

SONIA GANUZA. ANFAS (PLENA INCLUSIÓN NAVARRA). Psikologoa. Erakundeko Irisgarritasun kognitiboko zerbitzuan lan egiten du.

14.30-14.40.

Itxiera.

ANDER DOMBLÁS. Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuko zuzendaria.

MANUEL ARELLANO. CERMINEko lehendakari-ordea

IZENA EMATEKO MODUA Bete galdetegia, esteka hau sakatuta

<https://goo.gl/forms/KeZzKRm7MvfGJiw83>

Leku kopuru mugatua (150). Lekua, izen-ematearen arabera hurrenkeran. Jardunaldia DOAN

Antolatzailea



Finantzatzailea



Laguntzailea

Ikastetxeen Laguntzaileak
Consejo Escolar de Navarra



Hezkuntza, Hizkuntza eta
Nafarroako Eskola Kontseilua



Prestakuntzaren justifikazioa eta xedea:

Sandra Fisher-Martinsek dioen bezala, “informazioaren apartheid” bat gertatzen da herritarren sektore batek ulertzen ez dituen bere eguneroko bizitzarako behar dituen agiriak. Horren haritik ondorioztatzen da komunikazioak irisgarria izan behar duela, jendearen aukera berdintasuna bermatuko bada, herritarren eskubide eta betebeharrak erabiltzerakoan.

Prestakuntza hau zuzendaritza taldeentzat edota barne komunikaziorako arduradunentzat da eta, haren bidez, gogoeta egitera gonbidatu nahi zaituztegu zuen erakundeetako komunikazio ereduaz, honako hauek bezalako galderen bidez: zuzentzen natzaion publikoak ulertzen al ditu nik transmititu nahi ditudan mezuak? Edo bitartekariak behar al ditu mezu horiek ulertu ahal izateko? Horren haritik, bi tresnari buruzko ezagutza jarri nahi dugu zuen eskura, biak oso erabilgarriak izan baitaitezke komunikazioaren kalitatea hobetzeko, hots, “elkar ulertzeko eta gure mezuak ulertarazteko”: HIZKERA ARGIA eta IRAKURKETA ERRAZA.

Txostengileen lanbide ibilbideari buruzko informazio gehigarria:

Óscar García Muñoz (Madril, 1977). Plena Inclusión Madrid ekimeneko Irisgarritasun Proiektuen arduraduna. Testuak irakurketa errazera eta hizkera garbira egokitzen ditu.

Kazetaritzan lizentziaduna da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta graduondoa Irisgarritasun Unibertsalean eta Guztiondako Diseinuan La Salle Unibertsitate Ikasketetako Goi-mailako Ikastegian eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoan.

“Lectura fácil: métodos de redacción y evaluación” metodologia-liburuaren egilea da, Real Patronato sobre Discapacidad erakundeak 2012n plazaratua. IFLA erakundeak argitaraturiko “Directrices para materiales de lectura fácil” lana itzuli du, eta irakurketa errazari buruzko liburuaren egilea da, irakasle eta maisu-maistrentzat, Hezkuntza Berrikuntzarako eta Ikerketarako Zentro Nazionalak plazaratua.

50 egokitzapen baino gehiago egin ditu irakurketa errazera; nabarmentzekoak dira, besteak beste, Espainiako Konstituzioa, Langileen Estatutua, kultura arloko foiletoak, museoetakoak edota haur liburuak.

Enpresen laguntzailea da informazio-testuak eta kontratu-testuak hizkera argian emateko.

Irakasle bisitaria irisgarritasun unibertsaleko graduondoetan, bai Lasalle Ikastegian bai Jaengo Unibertsitatean; halaber, ikastaro espezializatuak eman dizkie administrazio publikoei, enpresei eta gizarte erakundeek.

Irakurketa errazari buruzko mintzalari eta hedatzailea, irakurketa errazaren gaineko hiru topaketa nazionalen antolaketan parte hartu zuen, hirurak 2014tik 2016ra bitarte egindakoak, hainbat erakunderekin batera: Plena Inclusión, Altavoz, eta Factoría de Arte y Desarrollo. Era berean, biltzar espezializatuetan parte hartu du.

Vanesa Alonso Casadok ANFAS erakundearen lan egiten du, irisgarritasun kognitiboko zerbitzuan. Auto-kudeatzailea da, eta titulu hauek ditu: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Gradu Ertaina Kudeaketa Administrazioan, eta Prestatzaileen Prestatzailea. Egun, Haur Hezkuntzako goi-mailako gradua ikasten ari da. 2014an, “Prestatzailea Irakurketa Errazean” ziurtagiria eskuratu zuen. 2017an, espazioetako irisgarritasun kognitiboaren ebaluatzaile gisa prestatu zen. ANFASko irisgarritasun kognitiboko lan taldeko kidea da. Plena Inclusión-eko irisgarritasun kognitiboko estatu sarean da partaidea.

Sonia Ganuza Biurrun psikologoa da. 1999tik honat, ANFAS elkartean ari da lanean hainbat programatan, desgaitasun intelektuala duten pertsonen eta senideen bizi-kalitatea hobetzeko. Gaur egun, erakundearen irisgarritasun kognitiboko zerbitzuan ari da lanean. 2011n, irakurketa errazean hasi zen prestakuntza jasotzen eta, 2014an, “Irakurketa Errazean Prestatzailea” ziurtagiria eskuratu zuen. Laguntza emateko pertsona da ANFASko irisgarritasun kognitiboko lan taldean. Plena Inclusión-eko irisgarritasun kognitiboko estatu sarean da partaidea eta CERMINGo irisgarritasun unibertsaleko taldekidea da.

Antolatzailea:

Finantzatzailea

Laguntzailea



Ikastetxeen Elkartea
Consejo Escolar de Navarra



Ikastetxeen Elkartea
Nafarroako Eskola Kontseilua

